

IN MEMORIAM

¡Pobre Teodoro!

Aquella juvenil inteligencia que tantos amigos supo conquistar con su cautivante y fino trato, fiel reflejo de un espíritu culto de vasco de raza, se apagó para siempre.



Teodoro Goñi fué para esta revista uno de los «de casa».

El año pasado, la página dedicada a los caseríos de Rentería, fué obra suya. En el texto que acompañaba a las fotografías, puso entera su emoción de renteriano, amante entusiasta de lo más típico de nuestra tierra.

Sus éxitos como director del cuadro dramático del Centro Vasco, serán siempre recordados por sus buenos amigos que tan bien aprovechan sus enseñanzas.

Y el recuerdo de aquel muchacho, todo bondad y corazón, vivirá perennemente en la memoria de todos los que le conocieron.

Ni para morir tuvo suerte. En Oviedo, el 5 de Marzo pasado, entregó su alma al Creador, lejos de su casa, lejos de sus amigos, bajo otro cielo al de su amada Euskeria, flor de sus amores.

¡Pobre Teodoro!

RENTERÍA cumple el triste deber de dedicar este recuerdo al que fué su colaborador valioso y entusiasta, al que supo ser excelente amigo y querido de cuantos le trataron. ¡Goyan bego!

LA REDACCIÓN.



¿ZERGATIK...?

Bere ezpañetan Jaunak jarri zun
marrubi mardul-mardulenaren

gorria,

t'algara alaia ta iribar gozo

beti zerion iturri bizi

bizia.

Bere bi begi urdiñ aietan

Andaluziko ortze urdiñaren

urdiña...

ta Murillo'ren aingerutxoan

antzera berriz, bere arpegi

zorgiña...

Zergatik bere biotz-barruan

inpernu beltzak jarri ote-du

añ beazun beltz-zikiña...?

JAUTARKOL.

MADALEN JAYETAN ERRENTERIYAN

ESNE DOÑUA

Gau illunean mitxeleta da
joaten igesi argira,
moko ori dun xoxo beltxa dan
antzera sartzen sasira;
begira ondo hezkarik gabe
nola txoriyak kabira,
Madalenaren belauñpez dagon
apal gañeko errira.

Esna doñu ta susko ziriyeñ
lertzeak gaitu gaur poztu,
Madalenaren jaitzerik ez du
beñere elurrak oztu;
¿iñor ote da jayaren bero
au lezazenik izoztu,
iñork aditu aldu agiyan
akerrik danik bildoztu?

Andere eder muxu gorri'ta
beltxeran oso lirañak,
luma muturrez goitu nai ditut
nola nai diran mingañak;
oñez arin, ta gerriz biguñak
orlako aurrak azitzen ditu

bular gozodun irañak.

Oyek ikuztez zoratzen gera
zer esanikan ez dago,
gazte antzari igez egiten
utziya damutan nago;
lengo sasoirik ez da nigana
berritotuko geyago
ez dago zeri negarrik egin
nik izan nuben lenago.

Alferrik dira nere damuta
gañera nere negarrak,
oyeke dabilizan gayetan ezin
zankoz ibilli elbarrak;
urketari bat aserretzen du
kirten gabeko pedarrak,
bañan maitatzen dira biyotzez
korapillodun elkarrak.

¿Zer da dirana irudipenak
oso uzteko egindu,
zer gai dala ta neuriz gañeztu
ta burua zait arrindu?
Nik ez datik zerk diran biyotz au

ainbesteraño samindu,
gazte antzikan gabe arki naiz
¡Jesus! neriak egin du.

¿Zer izango da? maitasunaren
uloreak zaizkit zimurtu,
zergatik ez dan errukiz iñor
maitatsu nigan limurtu;
albanitzake urte lengoak
berriro trukez biurtu,
maitasun koipe leguna sutzez.
litezke biyotz bi, urtu.

Erbestetua bizi naiz, bañan
badet errirako naya,
biyotza sutzen zaidan bezela
indartzen zait jolas gaya;
erri oyala zintzilik zabal
barandan daukan agaya,
da erriyari adierazten
diyona Madalen jaya.

JUAN IGNACIO URANGA.